

Joseba Azkarragak liburu bat argitaratu du UEUren bilduman

2007/02/26

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) argitaratu berri du Joseba Azkarraga irakaslearen azken liburua: Modernitate kapitalistari kritika: Weber, Frankfurteko Eskola, Habermas. Liburu horrekin Josebak **pista batzuk eskaini** nahi izan dizkie unibertsitateko ikasleei, irakasleei eta gaien interesa izan dezakeen edonori, modernitatea eta kapitalismoa kritikoki aztertzen duen garrantzi handiko pentsamendu-hari bati helduz.



Joseba Azkarraga

Joseba Azkarraga irakaslea da HUHEZIn. Bertan **Gizarte Zientziak** departamendua zuzentzen du. Lanki Ikertegiko kide ere bada, eta hor hainbat ikerlan egiten ari da euskal kooperatiba mugimenduaren inguruan. 2004ean **Juan Zelaia saria** irabazi zuen Diruak behar luke bihotzik saioagatik. 2005an Euskaltzaindiaren **Mikel Zarate saria** jaso zuen Mendebaldearen mintzo mindua saioagatik. 2006an Eusko Jaurlaritzak **Euskal Gizartearen Egoera ikerkuntza-saria** eman dio. Joan den abenduan, **doktore tesia** aurkeztu zuen Leioan Mondragoeko kooperatiba esperientziaren gainean.